



GETXO ENPRESA (Getxo Enpresa eta Merkataritzak) GETXOKO 2011ko 21. ERAKUSLEIHOEN LEHIAKETA antolatu eta deitu du. Udalerriko enpresa guztiek parte har dezakete, jarduera ekonomikoko edozein sektoreko kide direla-eta, KOMERTZIOA, OSTALARITZA edo ZERBITZUAK, honakorik baldin badaukate:

ERAKUSLEIHO FISIKOA. Establezimenduko osagaiak, kanpotik jendearentzat ikusgarri direnak, produktuak erakusteko espazio bat eduki nahiz eduki ez; edota ERAKUSLEIHO BIRTUALA. Hau da, enpresaren webgunea.

HELBURUAK

Getxoko enpresa-sarearen garapena bultzatzea, enpresen kanpo irudia egokituz eta modernizatuz.

Getxoko enpresen sormena eta profesionaltasuna bultzatzea, egindako lanik onenak aipatuz eta, bidezkoa bada, sarituz.

GAIA

Garatuko den gaia librea da. Gaia erasokorra, baztertzaila edo iraingarria bada, edota ingurumenaren egonkortasuna kaltetzen duten osagaiak erabiltzen badira, enpresa lehiaketatik baztertuko da.

Erakusleiho fisikoetan, sormena, mezuaren eraginkortasuna eta egindako lanaren kalitatea eta berritasuna baloratuko dira. Edozein teknika edo estilo erabil daiteke. Gaia establezimenduan egin ohi den enpresa jarduerarekin bat etorri behar da.

Epaimahiak kontuan hartuko du erakusleiho fisikoen kopurua kalez kale eta erakusleiho hauen apainduraren kalitatea Ondoan Apaindutako Kalearen Sariaren garailea aukeratzeko.

Erakusleiho birtualetan, edukien egituraketa, diseinua, zerbitzuak eta haien funtzionaltasuna baloratuko dira.

Erakusleihoek, fisikoak nahiz birtualak, parte hartu ahal izango dute, Gabonetako apaingarriak eduki edo ez gorabehera.

Berdin da erakusleihoa (fisikoa edota birtuala) enpresak berak edo erakusleihoen edo teknologia berrien profesional batek diseinatzea eta egitea; azken emaitza baino ez da kontuan izango.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Erakusleihoak abenduaren 9tik 18ra bitartean ikusi ahalko dira.

Erakusleiho fisikoen mailan parte hartzen duten enpresek Getxo Enpresak (Getxo Enpresa eta Merkataritzak) lehiaketarako ematen duen kartela establezimendu edo bulegoen kanpotik ikus daitekeen leku batean ipini behar dute. Ez bada hala egiten, enpresa lehiaketatik kanporatuko da.

Lehiaketako enpresa irabazleek 2012ko urtarrilaren 8ra arte erakutsi beharko dute, establezimendu edo bulegoen kanpotik ikus daitekeen leku batean, lortutako sailkapenaren ziurtagiria, Getxo Enpresak (Getxo Enpresa eta Merkataritzak) sari banaketako ekitaldian emango diena.

Lehiaketa honetan parte hartuz gero, oinarriak osorik onartu behar dira.

Oinarri hauetan ezarri ez diren kontuei buruz erakunde antolatzaileak erabakiko du.

BIZKAIKO ERAKUSLEIHOEN LEHIAKETAN PARTE HARTZEA

Getxoko 21. Erakusleihen Lehiaketan parte hartzen duten enpresek, Bilboko Merkataritza Ganberak antolatzen duen Bizkaiko 2011ko XXVIII. Erakusleihen Lehiaketan parte hartzeko aukera dute. Bizkaiko lehiaketarako izena ematen duten enpresek Merkataritza Ganberari 28 euro ordaindu beharko dizkiote enpresako. Izena emateko, aipatutako enpresek www.camarabilbao.com/concursoescaparates Bilboko Merkataritza Ganberaren web orrialdean inskribapen-formularioa bete behar izango dute azaroaren 30a baino lehen.

Bizkaiko Erakusleihen Lehiaketan parte hartzen duten enpresek bere partaidetza bermatu behar dute lehiaketaren kartela establezimendu edo bulegoko leku ikusgai batean. Bilboko Merkataritza Ganberak bidaliko die kartel hau.

EPAIMAHAI A

Epaimahaia Getxo Enpresak (Getxo Enpresa eta Merkataritzak) izenduko du. Ondoko hauek osatuko dute: apainketaren, erakusleihen, diseinuaren, teknologia berrien eta kontsumoaren profesionalak, erakunde eta enpresa babesleetako kideek, eta erakunde antolatzaileek.

Epaimahaiak egoki irizten dien sariak eman gabe utz ditzake. Epaimahaiaren epaiaren aurka ezin da errekurtsorik egin.

Epaimahaiak 2011ko abenduaren 31n emango du jakitera epaia.

SARIAK

SAILKAPEN OROKORRA

1. saria: Bi lagunentzako bidaia eta egoitza Erromatan eta Aixerrrotaren erreprodukzioa.
2. saria: Bi lagunentzako bidaia eta egoitza Kanarietan eta garaikur bat.
3. saria: Hoteleko bono bi, 14 publizitate-modulu El Correo egunkarian eta garaikur bat.
4. saria: Gabonetako otzara eta espazio nabarmena Getxoko Udalaren webgunean hilabete batez.
5. saria: GPS eta 12 publizitate-modulu El Correo egunkarian.
6. saria: Erlojua eta espazio nabarmen Getxoko Udalaren webgunean bi astez.
7. saria: Aldizkari-gordetzeko eta ardo botila bateko sorta, bisita-txartelaren diseinua eta txartelaren 200 imprimaketa eta 9 publizitate-modulu El Correo egunkarian.
8. saria: Gabonetako otzara eta espazio nabarmena Getxoko Udalaren webgunean bi astez.
9. saria: Masaia sasoi bat eta 9 publizitate-modulu El Correo egunkarian.
10. saria: Gabonetako otzara eta kartel, flyer edo trptiko baten diseinua.
11. saria: Aldizkari-gordetzeko eta ardo botila bateko sorta eta publizitateko 8 modulu El Correo egunkarian.
12. saria: Erlojua eta espazio nabarmen Getxoko Udalaren webgunean aste batez.
13. saria: Masaia sasoi bat eta 8 publizitate-modulu El Correo egunkarian.
14. saria: Aldizkari-gordetzeko eta ardo botila bateko sorta eta espazio nabarmena Getxoko Udalaren webgunean bi astez.

SAILKAPEN BEREZIA

Mezurik Eraginkorraren Saria: 15 publizitate-modulu El Correo egunkarian eta garaikur bat.

Erakusleiho Birtualik Onenaren Saria: Smartphone, espazio nabarmena Getxoko Udalaren webgunean bi astez eta garaikur bat.

Ondoen Apaindutako Kalearen Saria: Publizitateko orrialde erdia El Correo egunkarian.

Lehiaketan parte hartzen duten enpresen artean udalerriko jatetxe batean bi lagunentzako afaria zozketatuko da.

Saritu guztiei lehiaketan lortu duten sailkapenaren diploma/ziurtagiria emango zaie.

IZENA EMATEA

Dohainik da. 2011ko azaroaren 18tik abenduaren 9ko 12:00etara egin daiteke.

Parte hartu nahi duten enpresek, izena emateko, ez dute zertan itxaron behar erakusleihoa prest

egon arte: abenduaren 10ra arte epaimahaiko kideak ez dira hasiko erakusleihoak baloratzen.

Lehiaketan izena ematea telefonoz, faxez, posta elektronikoz edo Getxo Enpresaren (Getxo Enpresa eta Merkataritzaren) egoitzara etorri egin daiteke. Enpresaren izen komertziala, jarduera ekonomikoko azpisektorea, telefono zenbakia eta establezimendu edo bulegoaren helbidea, edota webgunea adierazi behar dira.

Getxo Enpresa (Getxo Enpresa eta Merkataritza)

Arene kalea 22, 48991 Getxo

Tel. 944 30 55 00 Fax. 944 30 55 01

info@getxoempresariaycomercial.com

Jendeari arreta egiteko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 18:30eara

Jakinarazten dizugu, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, zure datuak Enpresa Sustapenak izeneko fitxategian sartuko dugula, Datuak Babesteko Bulegoaren erregistroan sartua. Fitxategiaren arduraduna Getxo Enpresa (Getxo Enpresa eta Merkataritza) da. Datu pertsonalen bilketa honen helburua da GEEMen jarduerak kudeatzea eta Elkarteak kudeatutako jardueren berri ematea, edozein bitarteko erabilia (posta elektronikoa barne). Zuk, datu hauen jabea zaren aldetik, aipatutako fitxategian datuok sartzeko baimena eta adostasuna ematen dituzu. Nolanahi ere, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak dohainik bete ditzakezu, Getxo Enpresara (Getxo Enpresa eta Merkataritzara) joz: Arene, 22, Getxo, Bizkaia. Gutunean LOPD idatzi beharko duzu.